

### 3. ARIKETA\_3 GAIA

Aztertu marka baten 5 osagai formalak.

Ariketa egiteko **EROSKI** markaren emaitza duzu adibide bezala.

Hona hemen gogoan hartu beharreko atalak:

#### 1.- IZENA:

- Ahoskatu daitekeen markaren osagaia.
- Naming kontzeptua.

#### 2.- SINBOLOA:

- Marka bereizten duen grafismoa da eta lehen begiradan ezagutzen dena.

#### 3.- LOGOTIPOA:

- Logo (hitza) eta tipo (hizkia) hitzez osatua dago.

Beraz, hizki, zifra edo laburdura multzo batez ari gara, konposaketa tipografikoa errazteko asmoz osatua.

#### 4.- KOLOREAK:

- Sarritan markek beraien nortasuna koloreen bidez adierazten dute.

#### 5.- ESLOGANA:

Markaren abizena izango litzateke. Marka ikusi gabe ere ezagutzen ditugunak.

## ERANTZUNA:

Adibide bezala EROSKI markaren ariketa eskaintzen da:

Irudia hartzeko, jo enpresaren webgunera: <https://www.eroski.es/eu/>

Hor, eskuinean "EROSKI zurekin" irudia topatuko duzu.

Orain, markaren osagai formalez hausnatu.

## MARKAREN OSAGAI FORMALAK:

### 1.- IZENA:

- Ahoskatu daitekeen markaren osagaia: "EROSKI".
- Naming kontzeptua: "erosi" eta "toki" hitzetan ikus dezakegu bere jatorria, izan ere, erosketak egiteko kooperatiba gisa sortu zen.

Gai horretan murgiltzeko irakurri: <https://www.eroski.es/eu/inspirate/blog-eroski/eroski-historia-duen-izena/>

### 2.- SINBOLOA:

- Marka bereizten duen grafismoa da eta lehen begiradan ezagutzen dena.

1990. urtean «E» hizki zuria sortu zuten irudi gisa, lauki gorri-urdin batean kokatua, EROSKI hitzaren ezkerrean.

Informazio gehiagorako jo hurrengo estekara, 1990 urtera:

<https://corporativo.eroski.es/eu/kronologia/>

### 3.- LOGOTIPOA:

- Logo (hitza) eta tipo (hizkia) hitzez osatua dago.

Beraz, hizki, zifra edo laburdura multzo batez ari gara, konposizio tipografikoa errazteko asmoz osatua.

Kasu honetan, EROSKI hitza zuriz agertzen da laukizuzen gorridun batean integratua.

Beste egitura eta formetan integratua ere ager daiteke, adibidez:

EROSKI center

EROSKI city

EROSKI online

EROSKI viajes

Egitura horietan, bigarren hitza zerbitzu berri bat da eta jatorrizko logotipoaren bertsioaren parte izatera pasatzen da. Laukizuzen gorriaren luzapena da baina urdin kolore korporatiboa hartzen dute zerbitzua nabarmentzeko.

Informazio gehiagorako jo hurrengo estekara, EROSKI ONLINE supermerkatuaren merkaturatzea, Internet bidez saltzeko kanal berri gisa, 2000 urtean: <https://corporativo.eroski.es/eu/kronologia/>

#### 4.- KOLOREAK:

- Sarritan, markek koloreen bidez adierazten dute euren nortasuna.

Gure adibidearen kasuan, gorria, urdina eta zuria dira koloreak.

#### 5.- ESLOGANA:

Markaren abizena izango litzateke. Marka ikusi gabe ere ezagutzen ditugunak.

Gure adibidearen kasuan, "Zurekin" izango litzateke. Eta aplikazio grafiko desberdinetan ikus dezakegu, adibidez:

EROSKI 50 urte zurekin

(ikusi <https://corporativo.eroski.es/eu/berrogeitahamar-urteurrena-memoria/>).